



# **“ETORKIZUNA IKASTOLA” IKASTETXE PUBLIKOAREN TUTORETZA PLANA 2021**

# AURKIBIDEA

## 1. TUTORETZA

1.1 Tutoretza kontzepzioa .....	3
1.2 Tutoretzaren helburuak .....	3
1.3 Tutorearen betebeharrak .....	4
1.4 Tutoretza burutzeko esparruak: .....	6
A) Tutoretza saioak .....	6
1) Haur Hezkuntzan .....	6
2) Lehen Hezkuntzan .....	8
3) Gaiak mailaka lehen Hezkuntzan .....	9
3.1 Lehenengo Zikloko gaiak .....	9
3.1.1 Denboralizazioa .....	9
3.2 Bigarren Zikloko gaiak .....	11
3.3 Hirugarren Zikloko gaiak .....	12
B) Ikasle Antolaketa .....	13
C) Tutoretza-iharduera departamenduetan .....	14
D) Jangela esparru hezitzailea .....	14
E) Egoera anitzetan eskuhartzea .....	15
F) Banan-banako tutoretza .....	15
G) Txosten banaketa .....	17

## 2. IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

2.1 Ziklo bilera .....	17
2.2 Ebaluazio saioak .....	18
2.3 Zikloen arteko informazio trukatzeko bilera .....	18
2.4 Zuzendaritza taldearen partehartzea .....	19

## 3. FAMILIAREKIN ERLAZIOA

3.1 Harreman sistematikoa .....	19
3.2 Gurasoekin elkarrizketa eta informe idatzia .....	20
- Idatzizko txostena	
- Banan-banako elkarrizketa	

4. ANEXOAK .....	23
------------------	----

# 1.TUTORETZA

## 1.1 Tutoretza kontzeptzioa

Tutoretza-iharduera etengabekoa da, hau da, esparru eta momentu guztietan ematen da.

Lehen Hezkuntzan, ikastaldeen prozesuetan irakasle batek baino gehiagok parte hartzen duenez, irakasle guztiei dagokie tutore funtzioa burutzea. Horretarako, irakasleak elkarlanean iharduteko, ezinbestekoak dira ikaslearen jarraipeneko asteroko saioak.

## 1.2 Tutoretzaren helburuak

Haurren garapen harmoniko eta osoa (emozionala, soziala eta kognitiboa) da xede nagusia, eta Hezkuntza Proiektuan jasotako helburuak dira lortu nahi direnak.

- Garapen emozionala:

Sentitu, bizi, adierazi: auto-ezagutza, auto-konfidantza eta oreka pertsonalean oinarrituta, jarrera baikorra eta eraikitzailea garatu nahi dugu gure ikasleengan. Norbanako eta taldearen hazkunde emozionala...

- Garapen soziala:

Elkarrekin bizitzen ikasi, besteekin harremanetan disfrutatu eta talde lana egiteko gai izatea da gure azken helburua. Hiritar kritikoak izan gaitezten... jarrera zabalak bultzatu eta balore positiboak barneratu.

- Garapen kognitiboa:

Ikasleak ikasten eta pentsatzen ikastea eta ikasitakoa erabiltzeko gai izatea lortu nahi dugu, etengabe ikasteko grina piztu.

Hauetz gain, ikasleekiko eta familiekiko hurbilketa lortu nahi dugu, umea eta bere mundua sakonago ezagutzeko eta haien inguruan ditugun aurriritziak baieztatzeke edo aldatzeke.

### **1.3 Tutorearen betebeharrak**

Ikasleari dagokionez, bai ikastetxean bai taldean ondo integratzeko, ihardueretan parte hartzeko, ikas-prozesuko bidea argitzeko, eta bere sentimenduak, kezkek, bizipenak adierazteko eta hauek bideratzeko laguntza eta gure aholkua ematen zaio.

Ezinbestez, ikaslearen ikas-prozesuan parte hartzen duten irakasle kideen inplikazioa, elkarlana eta koordinazioa bilatzen dugu.

Tutoreari dagokio familiarekin harremanetan egotea. Hasteko, eskolaren eta haurrak ikasiko duen mailaren berri emateko, eta batez ere, bere seme edo alabaren ikasketa prozesuaz hitz egiteko, eta, zailtasunik edo arazorik balego, hauei elkarrekin aurre egiteko.

Eremu bakoitzean tutoreek beteko dituzten zereginak deskribatuko ditugu jarraian:

#### **A) Ikasleei lotuta:**

- Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.
- Unerik berrienetan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo –etapa aldatzean,...
- Ikasleen ikasketa-prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza-erantzun eta/edo laguntza egokiak emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezkek, kexak... bideratzea, eta, taldeko ordezkariarekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta Zuzendaritza Taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaietan.

#### **B) Irakasle-taldearen irakasleei lotuta**

- Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, baita irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan

ere. Tutoreek hiru bilera egin beharko dituzte gutxienez ikasturteko, bere taldeko irakasleekin. Tutoreak bilera horien berri idatziz jasoko du.

- Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzea eta elkarlanean aritzera bultzatuz.
- Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta programazioan, ebaluazioan eta hezkuntza-harremanean duten inplikazioa jakinaraztea.
- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio-prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea.
- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea: curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berriaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako errefortzu-jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.
- Ikasleen ikasketa-zailtasun orokorrenei erantzutea, eta, ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza-premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum egokitzapena egiteko.
- Ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea.

### **C) Familiei eta/edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:**

- Ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri ematea gurasoei edota legezko tutoreei.
- Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren gainean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familiaren testuingurua hobeto ezagutzeko.
- Gurasoei aholkularitza ematea; besteak beste, alderdi hauetan: ikasketa- eta portaera-arazoen konponketan, ikasketen antolaketan eta plangintzan, eta ikasketa erabakiak hartzeko garaian.

- Seme-alabak irakaskuntza-jardueretara azaltzen diren eta jardueretan parte hartzen duten jakinaraztea ikasleen gurasoei edota legezko tutoreei, eta haren hezkuntza-prozesuaren berri ematea.

- Eskola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa ematea ikasleei, haren gurasoei eta/edo legezko tutoreei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organoetara jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe. Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.

- Familien parte hartzea bultzatzea ikastetxean.

## 1.4 Tutoretza burutzeko esparruak

**A) Tutoretza saioak:** ez dugu berdin jokatzeko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan.

**1) Haur Hezkuntzan** ez da berariazko saioren agertzen; geletan batik bat hitz egiten da zenbait gai buruz: eskola eta etxe kontuak, zaletasunak, bere sentipenak... eta beste gai batzuk tratatzen dira. Etapa honetan lan honen oinarria BEHAKETA da, etengabekoa da eta espazio desberdinetan egin daiteke (gelan, patioan, psikomotrizitateko gelan, komunean, jantokian...) Ikasleekin saio kolektiboetan agertzen diren gaiak zerrendatuta daude eta irakaslearen esku-hartzea zehaztuta.

Irakaslearen eskuhartzea garrantzizkoa da solas hauetan. Jarrera errezeptiboa erakutsiko du gertaeren aurrean sortzen diren gaiak jasota: Hauek gero ikasleen aurrean jarriko ditu, iritzia eman eta bere sentimenduak azalatu ditzaten. Lagundu egingo zaio ikasleari sentimenduei izena jartzen.

Haur Hezkuntza zikloan, gela barruko zein kanpoko funtzionamendua hobetzeko, beharrezkoa ikusten dugu arau batzuk biziki lantzea. Arau hauek umeei zuzenduta eta, ahal den neurrian, haiekin adostuta egongo dira. Landu beharrekoak ondorengo hauek izango dira:

- Arropa eta gure gauzak zaindu
- Ezin da txokoz aldatu
- Hitz egiteko txanda itxaron eta hatzamarra altxatu
- Aditasuna besteek hitz egiten dutenean

- Materiala jaso eta paperak paperontzira bota
- Elkarri laguntza eman
- Pasabideetatik astiro eta isilik joan
- Borrokan ez ibili

Metodologiari dagokionean, ez dugu arau hauek mailako sailkapen bat egiteko beharra ikusten. Oso oinarrizkoak dira, baten bat izan ezin (ezin da txokoz aldatu); kasu honetan bere kokapen naturala izango litzateke hiru urteko gela. Beraz, tutore bakoitzak talde bakoitza desberdina delako eta aniztasuna kontuan hartuz, ikasturte bakoitzean zeintzuk landu erabakiko du.

Lan hau aurrera eramateko, arau bakoitzari dagokion txartela prestatu dugu. Lantzeko momentuan umeen begi bistan egongo dira, behar den lekuan kokatuta. Arau bakoitzaren barneraketaren iraupena ez dugu zehaztuko, talde bakoitzaren ezaugarri eta erantzunaren arabera egingo da.

Umeen portaera arauen aurrean kontrolatzeko "Economía de Fichas" delakoa erabiliko da. Egunero, etxera joan baino lehen, balorazio bat egingo dugu; honen arabera gurutze gorri edo berdea jarriko zaie eta astea bukatzerakoan, gurutze gorri bat baino gehiago daukanak ez du saririk jasoko; besteek berriz. diploma bat eskuratuko dute, non adierazten den araua errespetatzen badakitela.

Arauez aparte badaude zenbait gai, haur hezkuntzan landu behar direnak. Batzu gure eguneroko dinamikan lantzen ditugu, espazio guztietan (gela, potioa, psikomotrizitate gelan...) eta modu etengabearen. Gai hauek dira:

- Aniztasuna
- Hezidetza
- Norberaren irudia
- Harremanak
- Osasuna

Beste gai batzuk, berriz, oso momentu puntualetan ager daitezke. Orduan, naturaltasunez tratatuko ditugu gaiok ipuin batzuen bidez. Gai hauek hurrengo hauek izango lirateke :

- Heriotza
- Banaketak, adopzioak
- Anai-arreben jaiotzak
- Etxe aldaketak

Saiatuko gara ikasturte honetan gai hauek bideratzeko daukagun materiala aberasten.

**2) Lehen Hezkuntzan** berariazko tutoretza-saio bat agertzen da ordutegian. Ziklo bakoitzeko taldeek ordu berean izan dezaten ahalegintzen gara. Hauetan taldearen errealitatea aztertzen dugu, harremanak ikertu, komunikazioa landu, egoera pertsonalak agerian jarri.... Hauez gain, auto-ezagutzara bideraturiko hainbat teknika eta joko proposatzen eta gizarteko gai eta arazoak tratatzen dira, hauen aurrean jarrera positiboa ager dezaten.

Eta honetako saioen edukia dagoeneko zehaztuta dago (zikloaren arabera zehaztaperen maila desberdina) eta gai desberdinak multzoka antolatuta:

**Funtzionalak:** ziklo bakoitzeko funtzionamendurako oinarriko arauen azalpena (ikus eranskinak).

**Harremanak:** zikloko ikasleen ezaugarriei erreparatuta planifikatzen dira gaiak, materialak eta prozedurak. Eskola-jazarpenarekin eta ikastetxeko eta ikastetxetik kanpoko bizikidetzan duen eraginarekin lotutako guztia, bai eta genero-ikuspegia orokorrean hartzea ere, zeharkako alderdiztat jotzen dugu, eta, beraz, gai guztietan landuko ditugu.

**Sentimenduak** (autoestimua): zikloko ikasleen ezaugarriei erreparatuta planifikatzen dira gaiak, materialak eta prozedurak.

**Norberaren antolamendua** (ardurak): etxean zein ikastetxean.

**Gizartearekiko jarrera positiboak:** kontsumoa, euskara, ingurumena...

LH-rako planteatzen diren gai, eduki eta helburuak harreman zuzena daukate Bizikasi-k planteatzen dituen gai eta helburuekin. Elkarbizitza planean dokumentuen arteko harremana islatzen da. Bizikasik 2. ziklorako eta 3.ziklorako planteatzen dituen helburu guztiak Tutoretza ekintza plana honek bere baitan hartzen ditu eta horiek lantzera bideratuta dago. Lanketa hori, aurretik esan bezala, ez da soilik tutoretza saioetara



mugatzen, egunerokotasunak eskatzen duenean ere gai desberdinei garrantzia ematen zaie eta horien lanari ekiten zaio. Gai bakoitza lantzeko behar den materiala dagozkien karpitetan artxibatuta dago.

### **3) Gaiak mailaka lehen hezkuntzan**

#### **3.1 Lehenengo zikloko gaiak:**

1. Ikasleen harrera eta integrazioa
2. Gela-taldearen antolamendua eta funtzionamendua
3. Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena
4. Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten.*

##### **3.1.1 Denboralizazioa:**

**Lehenengo gaia:** "Ikasleen harrera eta integrazioa"

##### **Lehenengo ikasturtea:**

- Ikaskide berria daukagu \*
- Honelakoa naiz ni I

##### **Bigarren ikasturtea:**

- Ikaskide berria daukagu \*
- Honelakoa naiz II
- Izen metatzaileak

\* Ikasle berririk balego.

### **BIGARREN GAIA: Gela-taldearen antolamendua eta funtzionamendua**

##### **Lehenengo ikasturtea:**

- Taldeka lan egiten dugu I
- Gelako elkarbizitza arauak I

- Soziograma I

### **Bigarren ikasturtea:**

- Joku araudunak
- Gelako elkarbizitza arauak II
- Soziograma II

**HIRUGARREN GAIA:** Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena

### **Lehenengo ikasturtea:**

- Nolakoa naiz
- Arduratsua naiz I
- Nire familia I
- Jarrera kontrolatzen ikasten dugu
- Jostailuak I
- Neskak eta mutilak: desberdinak?
- Otsoa, eltxoa eta ni jauna
- Armiarma sarea
- Erabakiak hartzen ikasten dugu
- Tutoretza balioesten dugu I

### **Bigarren ikasturtea:**

- Itxura ona
- Arduratsua naiz II
- Nire familia II
- Agurren horma irudia
- Jostailuak II
- Gauzek ez dute sexorik
- Oker joka dezaket
- Nori dagokio?
- Izarra

- Tutoretza balioesten dugu II

**LAUGARREN GAIA:** Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten.*

2020-2021. ikasturtean COVID-19 pandemia dela eta, ikasturte hasiera, inoiz baino une garrantzitsua eta baldintzatua da. Hori dela eta, alderdi sozio-emozionala eta talde kohesioa lantzeko beharra ikusi da.

**Lehenego ikasturtea:**

- Armiarma sarea
- Silueta
- Kitbull, txakur laguna
- Bat eta bat talde osoa

**Bigarren ikasturtea:**

- Zer sentitu dut
- Gai naiz
- Nire bizitza aldatu da
- Ondo pasa dezakegu
- Elkartasuna!!!

### 3. 2. Bigarren Zikloko gaiak :

2020-2021 kurtsoan, konfinamendu posible bati begira, tutoretza saioetan beharrezko gaitasunak eta plataformetako formakuntza burutuko dugu: gmail, bideo-deiak (meet) eta classroom.

2020-2021. ikasturtean COVID-19 pandemia dela eta, ikasturte hasiera, inoiz baino une garrantzitsua eta baldintzatua da. Hori dela eta, alderdi sozio-emozionala eta talde kohesioa lantzeko beharra ikusi da. Aipatutako alderdia lantzeko gai berri bat txertatu da: Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten*.

#### 1. Ikasleen harrera eta integrazioa

- Ikasleen aurkezpena
- Kanpotarren integrazioa

#### 2. Gela/taldearen antolamendua eta funtzionamendua.

- Araudia
- Eskolako ardurak
- Eskolako funtzionamendua eta antolamendua

#### 3. Lan ohiturak eta norberaren zaintzari lotutakoa eskuratzea eta hobetzea

- Agendaren erabilpena
- Etxerako lanak
- Garbitasuna

#### 4. Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena

- Autoestimua landu
- Sentimenduak adierazi
- Jarrera egokiak adierazi
- Pentsamendu baikorrak
- Familia
- Etxeko ardurak

- Emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasunak
- Elkarbizitza
- Kontsumoa
- Ingurumena

5. Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten.*

- Kitbull, txakur laguna
- Gai naiz
- Ondo pasa dezakegu

### **3.3 Hirugarren Zikloko gaiak:**

2020-2021 kurtsoan, konfinamendu posible bati begira, tutoretza saioetan beharrezko gaitasunak eta plataformetako formakuntza burutuko dugu: gmail, bideodeiak (meet) eta classroom.

2020-2021. ikasturtean COVID-19 pandemia dela eta, ikasturte hasiera, inoiz baino une garrantzitsua eta baldintzatua da. Hori dela eta, alderdi sozio-emozionala eta talde kohesioa lantzeko beharra ikusi da. Aipatutako alderdia lantzeko gai berri bat txertatu da: Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten.*

#### **1. Ikasleen harrera eta integrazioa**

- Ikasleen aurkezpena
- Elkar ezagutu (ni eta lagunak)

#### **2. Gela/taldearen antolamendua eta funtzionamendua.**

- Araudia
- Eskolako arduren banaketa
- Soziogramak

#### **3. Lan ohiturak eta norberaren zaintzari lotutakoa eskuratzea eta hobetzea**

- Agendaren erabilpena

- Etxerako lanak
- Nolako ikaslea naizen
- Irakurketarekiko arreta
- Aisialdiaren antolaketa

4. Alderdi sozio-emozionalak eta talde kohesioa: *ikasitakotik bideari ekiten. (Unitate berri honen lanketa tutoretza saioetan lantzeaz gain hezkuntza fisikoan ere landuko da)*

- Armiarma sarea (HF)
- Silueta (HF)
- Zuzendaria (HF)
- Aulki kooperatiboa (HF)
- Kitbull txakurra (Tutoretza)
- Elkartasuna (Tutoretza)
- Bat- bat (Tutoretza)

5. Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena

- Autobiografia (0-2, 2-10, 10-12 urte eta etorkizunean)
- Nire indargarriak
- Besteekiko harremanak (indarkeria, kritikak onartzea, agur egokia, irribarrez hartu, mesedeak eskatu, begiradaren garrantzia, besteak indartu, jarrera ezegokiak kontrolatu, asertibitatea, ezetz esaten jakin)
- Sexualitatea
- Publizitateak transmititzen dituen baloreak
- Bideo-jokoak eta jolasen baloreak
- Kontsumoa
- Inguruaren zaintza
- Tutoretzaren balioa

Orokorrean saio hauetan egiten denak euskarri fisiko bat edukitzea komenigarria ikusten dugu: marrazkiak, fitxak, ideiak edo akordioak jasota... Ziklo bakoitzak bere materiala izango du Baliabide karpitetan.

- Aukeratutako ipuinen irakurketak
- Bideoak
- Jolas kooperatiboak
- Esketxak sortu eta antzeztu zenbait egoera eta erantzun isladatzeko.
- Abestiak, dantzak...
- Bestelako jolasak eta jokua
- Irudiak erabili, emandakoak eta sortutakoak: marrazkiak, argazkiak...

Tutoretza saioetan taldearen errealitatea aztertuko dugu: (arazoak, ondo dabilena...), harremanak ikertu, komunikazioa landu, egoera pertsonalak azaldu, zein momentuetan aurkitzen diren behatu eta egoerak sortu jokabideak eta rola aztertzeko eta azalarazteko.

Tutoretza saio hauetan bi dinamika eramaten dira aurrera:

- Egoera pertsonalak ikusi, nola sentitzen diren jabetu eta behar izanez gero, momentu horretan edo banakako saioan eskuharmena egin. (kontuz, ezin gaitzezke honetan bakarrik gelditu beti arazoak eta arazoak bilatzen eta aztertzen)
- Egoerak sortu hainbat baliabide eta teknika erabilita. Era honetan autoezagutzera bideratzen ditugu: afektiboki, harremanetan eta aurriritzietan. (ezin gaitzezke honetan gelditu ere, beti aktibitateak sortzen errealitatea inoiz aztertu gabe).

**B) Ikasle antolaketa:** Gure ikastetxean Ikasle antolaketa eta Tutoretza saioak elkarturik jorratzen ditugu. Saio hauen ezarpen maila ere desberdina da etapa eta zikloen arabera.

**Haur Hezkuntza eta 1. Zikloan**, gela guztietan “makinista/arduradun” bat izendatzen dugu zerrenda jarraituz.

Makinistak eguneroko errutinak egiten ditu: egutegia, eguraldia, eguneroko plana, umeen zenbaketa eta faltak, txoko aldaketak... Honez gain, gelan materiala falta bada (orriak, fotokopiak, ezabagomak...), bera arduratzen da bulegora joaten eta materiala eskatzen.

**Lehen Hezkuntzako 2. Eta 3. Zikloen** ikasleen partaidetza honela da:

- Ziklo arduraduna: 2. eta 3. Zikloetako ikasleen hauteskundeetan hautatutako ordezkariak zerbitzuen funtzionamenduaz arduratzen dira. Zerbitzuak hauek dira: materiala,

teknologia, mediateka eta “Behatokia”. Material arduradunek euren lanen berri Tutoretza saioan eskaintzen dute Mediatekako arduradun nagusia (Irakasle bat), telebista, irratia, egunkaria eta txikiwebeko funtzionamenduaz arduratzen da. bestaldetik, eguneroko lana burutzen duten ikasleak 5. eta 6. mailakoak dira.

- “Behatokia”: Organo hau ikastetxeko bizikidetzaren egoera gainbegiratzeaz arduratzen da. Kide izango dira, besteak beste, ikasleen bi ordezkari, 2. eta 3. zikloko ikasle guztien artean aukeratuak.

**C) Tutoretza iharduera Departamentuetan:** Gure gelen eraketak, aktibitateak, adinen nahasketak, eta, azken batean, gure ikasteko moduak sentimenduak loratzen laguntzen eta harreman ezberdinak bultzatzen ditu. Hortaz, momentu eta aukera asko ditu irakasleak eskuhartzeko. Ikaslearen pista franko aurki ditzake geletan eta ekimen hauetan guztietan: Informazio hau jaso eta gero, tutoretza saioetan lantzeko. Ez dugu zertan jolasak asmatu beharrik, eskura baititugu egoera errealak.

Irakasleak datuak jasotzeko behaketa fitxa erabil dezake eta ikasleak auto-ebaluaketarako orrian idatz ditzake balorazioak. Bi hauek tresna ederrak dira harremanak aztertu eta hobetzeko. (Ikus II. eranskina).

**D) Jangela esparru hezitzailea:** Jangela esparru hezitzailetzat hartzen dugu, beraz Hezkuntza Proiektuarekin bat etorri behar da.

Horretarako beharrezkoa ikusten dugu jangelako egiturak (sukaldariak, zaintzaileak, koordinatzaileak) ikasle eta irakasleen egiturekin, hau da, Tutoretzako eta “Behatokia” –ren bilerekin txertatzea. Era berean lotura izan behar du gurasoekin: zuzenean koordinatzailearen bitartez, edo zeharka tutoreen bidez.

Kurtsoan zehar informazio idatzia pasatzea komenigarria ikusten dugu, beti ere, langileen ordutegiak eta lan baldintzek aukera eskaini ezker; eta hortaz aparte, gatazkak edo arazo larriak direla eta, beharrezkoa ikusten den guztietan.

Ikasleak beraien jokabideak aztertzea eta ondorioak ateratzea beharrezkotzat jotzen dugu. Beste esparruetan bezala (eta hemen bereziki), gatazkak sortzen direnean eskuhartze protokoloa zaintzea ezinbestekoa da. (ikus eranskina).



**E) Egoera anitzetan eskuhartzea:** (jolastokia, karrajuak, liburutegia, komunak, irakasle ordezeko batekin daudenean...)

Arazoa behatzen duen irakasleak hartuko du ardura. Oso arazo larria bada soilik, irakasle horrek tutorearengana joko luke (errespetu falta, inolako kasurik ez, jarrera bortitza, ...) (gatazka protolokoa ikusi eranskinetan).

Esku-hartzea:

1. Momentuan geldiarazi. Ondorengo prozedura aurrera eramateko denborarik ez balego, geroago egingo genuke. (garrantziaren arabera).
2. Ikasleei entzun, haiekin hitz-egin. (haien artean adostu zer gertatu den irakasleari kontatzeko)
3. Horrela bideratuta balego, amaitutzat emango genuke.
4. Neurriren bat hartu behar bada: egin dutenaren garrantziaz ohartarazi, eurek adostu edo pentsatu nola konpondu ahal duten egin dutena. (reparación)
5. Horren jarraipena ere irakasle horrek egingo du.

**Oharrak:** Jolasaldi zaintzak: ikasleak etengabe aurrera eta atzera eskolako atetik eta komunetatik, egoera hau **kontrolatzen** saiatu behar gara. Geletan adostuta dago **inor** ezin daitekeela geratu (ikus gertakarien orria eranskinetan).

**F) Banan-banako tutoretza:** Ikaslearekin banan-banan sistematikoki hitz egiteko saioak dira. **Asmoa:** guztiekin egotea da, eta hori segurtatzen dugu, dena den beharrek agintzen dute. **Gaia:** Esandako ikas-prozesuaz gain, ikaslearen bizipenez (eskolan, kalean etxean...), bere zaletasunez, sentimenduez, iritziez, lanaren antolamenduaz,... hitz egiten dugu

Haur Hezkuntzan ume batzuk maiz hurbiltzen dira irakaslearengana berarekin egoteko beharra dutelako. Gainontzekoekin, gutxitan hurbiltzen direnekin, irakasleak bilatuko du momentu eta leku egokia: psikomotrizitate gela, jolasordua, espezifikoak sartzen direnean ...

**Lehen Hezkuntza:** banakako tutoretzak burutzeko ondoren proposatzen diren gaiak gidoia bezala erabiliko ditugu:

1. Egoera eskolarra: zelan departamentuetan (gelan)?, zelan kideekin?, Zer da gehien gustatzen zaizuna? (zergatik?), nortzuk dira zure lagunak?, lan egitea gustatzen zaizu?, zergatik zatoz eskolara?, zelan irakasleekin?, zerbitzuetan?...
2. Etxeko egoera: Nortzuk bizi dira zure etxean?, neba-arrebekin harremanak?, etxean laguntzen duzu?( zertan?), nor etortzen da zure bila?, pozik zaude?, norekin jolasten duzu?...
3. Zaletasunak: arratsaldeetan, kalean, jolastokian ...
4. Lotura afektiboa lortzeko: tutorea bihurtu behar da ikaslearen laguntzailea, binkulazio afektiboa lortzen saiatu behar gara.
5. Ikasleak bere garapenaren kontzientzia izan dezan: gainontzeko irakasleen iritziak, pertsonalak zein akademikoak, jakinarazi.
6. Harremanetan dauden gatazkak bideratu.
7. Ikasleek rol ezezkorak adierazten dituztenean.
8. Norberaren antolamenduan lagundu.

**Haur Hezkuntza:** tutoretza mota hau 4 eta 5 urteko ikasleekin, bereziki, egiteko egokia ikusten dugu. Ez 2 eta 3 urtekoekin, oso kasu berezia edo ume oso heldua ez bada behintzat. Elkarrizketa formala eramatea posiblea ez delako. Ondorengo gidoia erabiliko dugu elkarrizketa bideratzeko:

## 1. ESKOLA

- Zelan gelan? Zelan lagunekin?
- Non zaude gustorago? Zein da gehien gustatzen zaizuna? Zergatik?
- Nortzuk dira zure lagunak?

- Zergaitik gatoz eskolara? (haiek ez dute uste bakarrik jolasteko) ...

## 2. ETXEA

- Nortzuk bizi dira zure etxean? (amama, aitite...)
- Neba-arrebekin harremanak
- Etxean zer egiten duzu? Pozik zaude?
- Nor etortzen da zure bila? Ona da? Gustatzen zaizu? Jolasten du zurekin?
- Eta norekin jolasten duzu? (lehengusuak,...)
- Etxean laguntzen duzu? .Zertan...?

## 3. ZALETASUNAK

- Arratsaldetan zer egiten duzu? Zergaitik? Nola? ...
- ...Nagusia izan nahi duzu? Zelan txikiekin? Zelan nagusiekin?

**G) Txosten banaketa:** informe edota gurasoen elkarrizketa garaian, komeni da 3. , 4. , 5. eta 6. mailako ikasle bakoitzari irakasleok bere ikas-prozesuaz egiten dugun balorazioa transmititzea.

## 2. IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

### 2.1 Ziklo bilera

Astean behin eskolari eta zikloari dagozkion aspektu funtzionalak eta pedagogikoak aztertzen dira. Hauetaz gain, arauak ezarri eta gatazkak aztertzeko (prebenzioa eta irtenbideak bilatu) esparru egokia da. Kasu konplexuetan tutorearen eskuhartzea bakarrik ez bada nahikoa, zikloko beste irakasleen iritziak eta ikuspegiak lagungarriak izaten dira.

### 2.2 Ebaluazio saioak

Ikasle bakoitzaren ikas-prozesua aztertu, baloratu eta eskuhartzea adosten da bilera hauetan. Irakaslearen beharrak atzeman behar dituzte eta hauei aurre egiteko laguntzak ipiniko

dituzte. Gure eskuhartzea etengabe baloratuko da. Ikaslearen promozioaz arduratuko da, bai eta ziklo artean ikasturte hasieran izan behar den informazioaren transmisioan.

Sektoreko irakasleak, ABZkoak, eta tutoreek burutzen dute lan hau. Saio hauek hiruhilabete hasieran antolatu behar, parte hartzen duten irakasle guztiek egoteko modua izan dezaten. Honela, hiruhilean behin egiteko aukera izango dugu. Ziurtatu behar da talde guztietako ikasle guztiez hitz egiten dela (ez soilik arazoak dituztenez) (ikus eranskinak).

Bilera hauek diseinatzerako orduan kontutan izan beharrekoak:

- Irakaslearen aurriritzia ikasle eta familiarekiko: ahalik eta objetiboak izan daitezen saiatu behar dugu, bere aurreko “previo” edo ezaugarriak kontuan izanik.
- Ikaslearen karpeta: ikasle bakoitzak bere karpeta izango du, bertan ikasturte desberdinetako edota beste ikastetxe batzuetako edo erakundeetako txostenak bilduko dituelarik.
- Departamentu desberdinetako analisiak izan behar ditu, ikasketa prozesuaren prebioak (interesa, jarrera, erritmoa, gaitasuna...); era berean, ikaslearen konpetentzia maila islatu behar da, behaketa pista eta ebaluatzeko pistetan oinarrituz; aurrerapenak eta zailtasunak adierazi behar dira, eta baita beste esparru desberdinetako informazioak ere (jangela, aisialdia, aholkularitza...). Hau guztia kontuan izanik, adostutako eskuharmenerako estrategiek azaldu behar dute, dagokion eranskinean idatziz.

### **2.3 Zikloen arteko informazio trukatzeko bilera**

Zikloz promozionatzen duten ikasleen informazioa eskaintzeko bilera da. Ekainan edo irailan egiten da, irakasleriaren finkotasunaren arabera. Bertan, ziklo bakoitzeko bi tutoreek ikasleriaren informazioa jasoko dituzten ikasleen zehetasunak luzatzen dituzte, eta baita taldeak egiteko irizpideak ezartzen dira ere.

### **2.4 Zuzendaritza Taldearen parte hartzea**

Zuzendaritzak tutoreen formakuntzarako esparruak (zikloko bilerak...) eta ekintzak (emanaldi pedagogikoak, kanpoko ikastaroak...) antolatu, informatu eta bideratu egiten ditu.

Batzorde Pedagogikoak eta Klaustroak izan ohi dira komunikaziorako tresnak. Batzorde Pedagogikoko bilerak hileroko egiten dira eta Klaustroak komenigarria ikusten denean (gutxienez, hiru hilabetez behin).

Tutorentzat Zuzendaritza erreferentzia bat izan behar da. Gatazka batek (ikasleen artekoa, ikasle eta irakasleen artekoa, irakasle eta gurasoen artekoa...) tutoretza, Zikloa eta Aholkularitzaren markoak gainditu dituenean, hau da, estamentu horiek erantzun egokia eman ezinik dabilzanean Zuzendaritzara jotzea komenigarria eta beharrezkoa da.

Guraso eta tutoreen artean desadostasuna dagoenean zuzendaria edo Ikasketa Buruaren eskuhartzea oso inportantea da. Beraien irudiak objetibotasuna eskaintzen du eta korapiloak askatzeko baliagarriak izan ohi dira.

## **2.5 Irakasleen arteko formakuntza**

2020-2021 kurtsoan, bigarren eta hirugarren zikloko irakasleak, konfinamendu posible bati begira, formakuntzarako saioetan (asteazkenetan) beharrezko gaitasunak eta plataformetako formakuntza burutuko dugu: gmail, bideoak (meet) eta classroom.

## **3.- FAMILIAREKIKO ERLAZIOA**

### **3.1 Harreman sistematikoa**

Tutorearen funtzioen artean honako hauek aipatzen genituen: Ikastetxearen eta Hezkuntza Etaparen berri ematea gurasoei, banakako hezkuntza prozesuaren jakinaren gainean jartzea eta lankidetzat eskatzea, eta ikasle eta gurasoei hezkuntza-prozesuaren berri ematea.

Komunikazioa ezarri behar da beraz, familia edo tutela dutenak eta tutorearen (eta beste irakasleak behar denean) artean. Horretarako mota ezberdinetako bilerak eramaten dira aurrera:

Gelako edo zikloko bilerak kurtsoaren hasieran eta banakako bilerak kurtsoaren zehar bitan, gehi bai familiaren aldetik bai tutorearen aldetik beharrezko ikusten den bakoitzean.

Kurtso hasierako bilera orokorrak, gela edota zikloko funtzionamendua, departamentuen aurkezpena, adinari dagozkion ezaugarriak, ezagut arazteko eta gurasoen kezka asetzeko aukera eskaintzen du.

Horiez gain, informe idatziak bidaltzen zaizkie familiei prozesuaren informazioa azalduz. Komunikazioa jorrazteko bide aberatsena (neketsuena ere) elkarrizketa dela uste dugu. Bertan informazioa emateaz gain, jaso egiten da eta elkarrekin eskuhartzeko aukera sortzen da. Gaineraelkarrizketetan (hobe aita eta ama azaltzen badira) irakasleak eta gurasoak elkar ezagutzeko aukera dago, gero haurren jokabideak ulertzeko eta bideratzeko lagungarria izanik.

### 3.2 Gurasoekin elkarrizketa eta idatzizko txostena

- **Idatzizko txostena:** Hiru informe idatzi ematen dira ikasturtean zehar, bat hiruhileko bakoitzean.

- **Banan-banako elkarrizketa:** hau da guretzat modurik eraginkorrena familia seme-alabaren prozesuaz behar bezala jabe dadin, eta aldi berean, informazio trukatu, denon ikuspuntuak aberasteko. Hauetan irakasleek aukera dute, familiak emandako informazioarekin, ikasleari buruz duten ikuskera zabaltzeko. Zailtasunen aurrean, pentsatzen dugunetik abiatuta, familiarekin diagnostiko bakarra eraikitzen saiatzen gara eta eskuhartze bateratua bultzatzen.

Ikasturtean zehar bi elkarketa planteatzen dira gutxienez: aurreneko hiruhilekoaren amaieran eta ikasturte bukaeran. Zikloa bukatzen duten ikasleen kasuan, komenigarritzat jotzen da bi tutoreak egotea. Era berean, NECdun edo errepikatu behar duten ikasleen kasuan, Pedagogia Terapeutikoko irakaslea egoteari gomendagarria deritzogu ere bai.

Dena den, premien arabera, behar adina elkarrizketa planteatu litezke bai tutoreak bai gurasoek eskatuta.

Azken hauetan, garrantzia handia ematen diogu beharra lehenbailehen atzemateari, elkarrizketak egoki prestatzeari, eta hauek baldintza txukunenean gauzatzeari. Bai eskolak bai familiak eska dezake bilera (ikus eskaera ereduak eranskinetan).

Ados jarriko gara hitz ordua jartzerakoan. Honetan moldakorrak izango gara, baina neurri batean. Bat etorri ondoren, tutoreak bileraren deia idatziz egingo du.

Bilera aurretik prestaketa lanari ekiten diogu. Bileraren helburua garbi ezarriko da, beharrezko informazioa bildu eta antolatuko da eta, behar izanez gero, beste irakasleren bat

inplikatu.

Gurasoek normalean zer jakin nahi duten kontuan hartuko dugu: euren seme-alaba non kokatzen den, zer nolako aurrerapenak egin dituen, nolako zailtasunak dituen, zer egiten dugun zailtasun horien aurrean... Komeni da aurreko txostenak bilerara eramatea, ikaslearen prozesuari buruzko informazioa eta hartutako erabakiak esku artean izateko.

Elkarrizketan tutorea egotea nahikoa izango litzateke orohar. Laguntza jasotzen duten ikasleen kasuan, PTEa edo Aholkularia bileran egotea komenigarria ikusten bada, gauza daiteke. Arazo larriak somatzen direnean, beste departamentuetako irakasleak egon daitezke ere bai.

Ez promozionatzeko arriskua ikusten denean, komenigarritzat jotzen dugu tutorea bakarrik ez egotea (ziklokideak, Arreta Bereziko irakasleak...). Honen harira, ez duela promozionatuko jakin arazi ostean, beharrezkoa izatekotan, Ikasketa Burua edota Zuzendariarekiko biltzearen komenigarritasuna aztertuko da.

Elkarrizketa burutzerako baldintza egokienak bilatzen dira:

- ordutegia ikasleriaren irteerarekin bat egin ez dezan saiatu beharko dugu, denbora pitin bat izateko zentratzeko eta baldintzak kontrolatzeko
- elkarrizketa ez da solasaldian burutu behar (zarata, espazioa, ordezkapenak...). Hala ere, salbuespenak baloratu beharko dira
- hitzorduak burutzeko ostiral eguerdia da unerik egokiena. Hala ere, gurasoren batek ezinezkoa balu, beste tarte bat bilatzen saiatu beharko dugu
- ahal den neurrian, atezaina aldeztatik abisatu (ez da komeni gurasoak ikastetxetik noraezean ibiltzea)
- elkarrizketa ez da inolatan ere kalean burutuko
- giro patxadatsua egotea sarreran, bitartean eta amaieran
- presarik ez izatea baina denbora kontrolatzea
- dokumentazioa aurrean izatea
- bileraren helburua markatu eta ez desbideratu
- elkarrizketan irakasle bat baino gehiago egongo denean, aurretik estrategiak edo zeinek koordinatu adostu
- ez baieztatu edo ezeztatu argudiorik gabe
- hitzegindakoa ulertu dutela ziurtatu, ondorioak laburbilduz

- ondorioak ateratzea eta hauek idatziz jasotzea (norberaren arabera doa bileran bertan idatzi edo honen ondoren, baina bai gurasoek jasota geratuko dela jakin behar dute, eta behar denean, aurreko bileraren laburpentxo bat eskaini ere bai)
- ez dugu inoiz beste ikasleei buruzko informaziorik eman behar
- familiek beste irakasleak aipatu edo hauei buruzko informazioa eskatzen dutenean, irakasle horrengana desbideratu
- kontuz ibiltzea ematen den informazioarekin: hizkeraren eta informazioa kontrola (beti profesionalak eta isilpekoak izan behar du)

### **3.3 Familien formakuntza**

2020-2021 kurtsoan, konfinamendu posible bati begira, tutoretza saioetan beharrezko gaitasunak eta plataformetako formakuntza burutuko dugu: gmail, bideoeiak (meet) eta classroom. Lanketa hau egin ondoren ikasleek etxean aplikatu behar izango dute, familiak ere partaide egiteko eta tresnen erabilpenean trebatzeko.



# ANEXOAK


## TUTORETZAREN HELBURUAK DEPARTAMENTUETAN

Zein elementuk (aktibitate, baliabide, egoera...) sor ditzake edo sortzen ditu gatazkak edo ondoezak zure departamenduan?

A) Taldearentzat zein ikasleentzat aurreratzeko eta ondo egoteko balio ez duena, hau da Alferrikako gatazkak sortzen dituenak eta hobekuntzara eramaten ez gaituztenak (molestatzen duen telebista, orientazio txarra duen mahaia, espazioren eza, zarata, gaizki dabilen balaibidea: ordenagailua edo beste edozein aparailua, ekintza desegokia...).



B) Ikasleen eta taldearen garapenerako egokiak, aberasgarriak izan daitezkeenak, nahiz eta ematen direnean molestagarriak eta desatseginak izan, aktibitate edo lan bat aurrera eramateko ezinbestekoak eta propioak direnak ( bikoizketa egiterakoan erritmo ezberdinak errespetatu beharra, antzerki baten paperak banatzeko orduan, aurkezpenetan entzuteko eta azaltzeko prozesuan, azpitaldeak egin behar diren egoeretan, antzerki entsaioetan sortzen diren gorabeherak, elkarri zuzenketak egiterakoan, hitzaldiak antolatu eta aurkezterakoan, telebistako programa grabatzerakoan...)



**NON ETA NOIZ USTE DUZU LANTZEN DIRELA ONDOKO BALOREAK ZURE  
DEPARTAMENDUAN ( ZONETAN EDO KOLEKTIBETAN)**

**(pentsatu sartzen direnetik atera arte, jasoketa barne)**

BALOREAK	ZONETAN edo KOLEKTIBAN (azalpenetan, aurkezpenetan...)	AKTIBITATEA(k)
Ardura eta erantzunkizuna		
Elkartasuna		
Lankidetzatza		
Besteen eta norberaren lana baloratu.		
Akordioak eta erabakiak lortzeko elkarrizketa.		
Aniztasunaren balorazioa: kulturak, etorkinak, behar bereziak dituztenak... Bestearen balorazioa, bestearekiko begirunea		
Entzute aktiboa		
Enpatia		
Arreta, atentzia.		
Konzentrazioa		

Memorizazioa		
Norberaren erritmoa errespetatu .		
Frustrazioaren aurrean tolerantzia		
Bere buruaren ezagutza		
Ekitatiboki juzkatu.		
Arauak bete eta onartu.		
Autoestimua.		
Sentimendu eta emozioen adierazpena eta autoerregulazioa.		
Arrazoiketa		

# “TXOKO ALDAKETA”

## AKTIBITATEEN ADIERAZPENA

Aritu naizen txoko edo zona:

Partaideak:

Egin ditudan (ditugun) aktibitateak	Aktibitate horiek nola egiten dira? Hobetzeko gomendioak.

SINADURA:

# LANA ETA TALDEAREN BALORAZIOA

Izena:

taldea:

data:

Nire ustez saiatu naiz:	“a tope” buru-belarri	asko	dezente	nahiko	gutxi
Nire ustez nire lanak balorazio hau merezi du:	bikain	oso ondo	ondo	nahiko	gutxi
Taldekideen ustez:					
Nola sentitu naiz? Zergatik?	<p>hunkituta behartua harrituta triste atseginduta dezepzionatuta frustratuta, zapuztua isolatuta, baztertua pozik jeloskor harro gogaitua kezkaturata nagituta onartuta amorraturata, garrantzitsua ikaraturata lasai ...</p>				
Taldeko giroa izanda:	Bikaina	oso ona	ona	erdipurdikoa	txarra
Gora behera hauek sortu dira:					

## GATAZKEN AURREKO TXOSTENA

Izena eta abizena:

Taldea:

Tutorea:

Data:

KONTA EZAZU ZER GERTATU DEN:

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

ZUK ZER EGIN DUZU?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

GERTATU DENAREKIN NOLA SENTITU ZARA?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

ARAZOA KONPONDU NAHI DUZU ?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

ZER EGIN DEZAKEZU ARAZOA KONPONTZEKO ?

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

KONPROMEZUA :

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

SINADURA :

NAGUSIAREN BEHAKETA :

.....  
.....  
.....  
.....  
.....

NAGUSIAREN SINADURA

TUTOREAREN SINADURA

## GERTAKERIEN PARTE ORRIA

<b>DATA</b>	
<b>IRAKASLE/NAGUSIAK</b>	
<b>IKASLEA/K</b>	
<b>GERTATUTAKOA</b>	
<b>NEURRIAK</b>	
<b>SINADURA</b>	